

## 2018ko APIRILAK 12ko OHIKO BILKURA

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hemezortziko apirilak hamabi.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Jule Aranburu Mariezkurrena.  
Asier Aguirre Murguiondo.  
Erkuden Aguirre Arruabarrena.  
Xabier Aranburu Altuna.  
Julen Zabala Garcia.

**EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Ion Mujika Perez.

**IDAZKARIA:**

Iñaki Alonso Antolín.

**BATZARRA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Arratsaldeko zortziak.

**AMAIERA ORDUA:** arratsaldeko zortziak eta hogeii..

### 1.- Aurreko aktaren onespina.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako akta irakurri ondoren, 2018-02-14 ohikoa aho batez onartzen da.

### 2.- Alkatetzaren Ebazpena.

Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:

\* Jose M. Murgiondo eta Javier Aranbururi Sesarripa baserriko errepedean hesia jartzeko obra baimena emanez.

\* Kele Lasa Arkitektoari Plazako etxebizitzaren Poiektua egiteko esleipena eginez.

### 3.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

ZKIA	KONZEPTU	ZENBATEKOA
1	ERKUDEN ARRUABARRENA: MADRILGO BIDAIA	845,30
2	SEMATEC: GALDAREN REBISIOA	223,08

3	NATURGAS EDP: UDALETXEKO GASA	535,63
4	NATURGAS EDP: LUDOTEKAKO GASA	589,77
5	SEMATEC: GALDAREN REBISIOA	259,90
6	CHIP,S: ANTIBIRUSA	108,48
7	GOIUR: MAKINERIAREN ALOKAIKUA	2.178,00
8	BERRI: MAKINERIA KONPONDU	78,20
9	ILARKI: ETXEZ ETXXEKO LAGUNTZA ABENDUA	1.140,80
10	ILARKI: ETXEZ ETXXEKO LAGUNTZA URTARRILA	1.768,90
11	URGO: GARBIKETAKO MATERIALAK	30,25
12	AEK: EUSKARA IKASTAROAK	588,00
13	ESMERALDA: GARBIKETARAKO MATERIALAK	34,75
14	CORREOS: POSTA KUOTAK	2,65
15	BERRIA: AGENDA	12,00
16	IÑAKI ALUSTIZA: HAURRESKOLAN LANAK	942,56
17	TXERRI GORRI ELKARTEA: EMANDAKO ZERBITZUAK	37,10
18	BERRI LANTEGIA: BELARRA MOZTEKO MAKINA	1.294,4
19	MAQUELSA: FOTOKOPIAGAILUA	4.688,75
20	ILARKI: ETXEZ ETXXEKO LAGUNTZA OTSAILA	1.444
21	VAQUERO: OSTATU EGINDAKO LANAK	1.366,63
22	HITZARO ELKARTEA: LUDOTEKAKO KUDEAKETA	2.627,19
23	CUALITIS: LAN PREBENTZIOA	79,65
24	TXOMIN: OSTATUN EGINDAKO LANAK	695,75
25	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	85,9
26	SUM. ALONSO: MATERIALAK	61,27
27	BULEGOAK: FOTOKOPIAK	122,83
28	URGO: GARBIKETAKO MATERIALAK	76,05
29	ARANTZAZU LIZARRALDE: ESKULAN IKASTAROA	935,08
30	MAQUELSA: FOTOKOPIAK	20,23
31	ORONA: IGOGAILUAREN MANTENIMENTUA	204,08
32	GOIEKI: GIZARTE ARLOKO EKARPENA	228,03
33	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	44,71
34	BERRIA: HARPIDETZA	108,25
35	LANDARRI: HILERRIKO MANTENIMENTUA	1.156,11
36	GOIERRIKO HEDABIDEAK: GOIBERRI	45
37	GABIRI S.L.: LIERNIKO URBANIZAZIOA 1. ZERTIFI.	30.537

#### 4.- 2018/01 eta 2018/02 Aurrekontuaren kreditu aldaketan onarpena.

2018/01 eta 2018/02 Aurrekontuaren Kreditu aldaketak ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, aho batez hasierako onarpena egiten da. 2018/01 espedientea kredituak txertatzeko da eta 2018/02 espedientea kreditu gehigarriak onartzeko da. 2. espediente hau jendaurrean jarriko 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

Aldaketa hauek dira:

**2018/01 ESPEDIENTEA:**

2017ko aurrekontutik txertatutako kredituak

601-15100-01	Lierniko Plazaren urbanizazioa (Gabiri S.L.)	54.995,71
601-41400-04	Meategietako bidea	5.009,40
	GUZTIRA	60.005,11

FINANZIAZIOA:

870-01	2017ko Altxortegi gerakina	60.005,11
--------	----------------------------	-----------

**2018/02 ESPEDIENTEA:**

Gehikuntza:

625-92000-02	Fotokopiadorearen erosketa	4.688,75
--------------	----------------------------	----------

FINANZIAZIOA:

870-01	2017ko Altxortegi gerakina	4.688,75
--------	----------------------------	----------

**5.- Peoi baten kontratazioa sortutako Lan-Poltsatik.**

Jarraian peoien lan-poltsa bat eratzeko, hautaketa prozesua bukatu ondoren epaimahaia egindako proposamena aho batez onartzen da. Aurkeztutako langileen sailkapena horrela izan da:

- 1.- Angel M. Mujika Goya.
- 2.- Jesus Zubizarreta Urbiztondo.
- 3.- Iban Gonzalez Garcia.
- 4.- Joseba Landa Telleria.

Segidan proposatzen da poltsa honetatik peoi baten kontratazioa egitea udalerrian ez ohiko garbiketak eta hobekuntzak egiteko, baldintza hauekin:

- Kontratazioa “obra edo zerbitzu bukaera arte” izango da.
- Kontratazioaren data 2018ko maiatzaren 2tik, aurrera.
- Lanaldia osoan.
- Soldata: Udalitzeko 6. Mailarena.

Proposamen hau aho batez onartzen da.

**6.- Erabilera pribatua edo udal herri jabari publikoa aprobetxamendu berezia egiteagatiko Tasaren Ordenantza Fiskalaren aldaketaren hasierako onarpena.**

Segidan, erabilera pribatua edo udal herri jabari publikoa aprobetxamendu berezia egiteagatiko Tasaren Ordenantza Fiskalaren aldaketari onarpena ematea proposatzen da. Aldaketa hau da:

- Erabilera pribatua edo udal herri jabari publikoa aprobetxamendu berezia egiteagatik: Lur publikoa okupatzeagatiko Tasa: 5€/m<sup>2</sup>.

Aipatutako akordioak eta izapidetutako espedienteak informazio publikoan jar-tzen dira, uztailak 5eko 11/1989 zk.-dun Foru Arauko 16.1 artikularen eraginez, Gipuzkoako Tokiko Ondasunen erregulatzailerak, bide ofizialean iragarkia argitaratuz eta Udaletxeko Iragarki Taulan, hori dena arau hauen barruan:

- a) Agerian dagoen lekua: Udal honetako Idazkaritzan.
- b) Aztertzeko eta bere kasuan kexak agertzeko epea: 30 egun baliiodunak, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN agertzen denetik, eta laneko ordutan.
- c) Erreklamazioak jartzeko aukera dutenak: Uztailak 5eko 11/1989 zk.-dun Foru Araueko 17. artikuluan zerrendatzen direnak.
- d) Aurkezteko tokia: Udalaren Sarrera Erregistro Orokorrean. Administrazio Publikoetako Erregimen Juridikoari eta Administraziozko Prozedurari buruzko 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 38.4 artikularen zehaztutako tokietan ere aurkez daitezke.
- e) Erreklamaturako organoa: Udal Plenoa.

Informazio honen epea amaitu ondoren, kexarik edo oharrik gabe, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira, akordio berrien beharrik gabe.

**7.- Landalurreko partzelen altxaketaren esleipena.**

Segidan, Mutiloako udalerraren GPSn bidez Landalurreko partzelen altxaketa topografikoa eta digitalizatzeko lanak Gipuzkoako Baso Elkarteari esleitzea 15.000 €tan (gehi BEZa) aho batez onartzen da.

### **8.- Baserritako bideak konpontzeko obraren esleipena**

Jarraian eta kontratu txikia izanik aho batez onartzen dira baserritako bide hauen konponketa egiteko lanak Gabiri S.L.ri esleitzea:

Lenkaran baserriko bidea.- 3.760€ (gehi B.E.Z.a).

Xexarripa baserriko bidea.- 9.928€ (gehi B.E.Z.a).

Odio baserriko bidea.- 7.455€ (gehi B.E.Z.a).

### **9.- Galde-erreguak.**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko zazpi tèrdiak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.